



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

**HORNIDURA ZERBITZUAK USTIATZEN DITUZTEN ENPRESEK
UDALERRIKO BIDE PUBLIKOETAKO LURZORUAREN, ZORUPEAREN
EDO LURGAINAREN BAKARREKO ERABILERAGATIK EDO
APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA
ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA**

2008

I – XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.-

1. Udal honek, Bizkaiko Lurralde Historikoko Tokiko Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorriz, hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresei tasak ezartzen eta ordainarazten dizkie udalerriko bideetako lurzorua, zorupearen eta lurgainaren bakarreko erabilera edo aprobetxamendu bereziagatik.

2. Ondore horietarako, hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresatzat honako hauek joko dira:

- a).- Energia elektrikoaren, uraren edo gasaren hornikuntzan diharduten enpresak.
- b).- Herritar guztientzat telekomunikazio zerbitzuak egiten dituzten enpresak, baldin eta osorik edo zati batez erabiltzen badituzte udalerriko bide publikoetako lurzorua, zorupearen edo lurgainaren bakarreko erabilera edo aprobetxamendu berezia eginez instalatutako telekomunikazio sare publikoak, sareen edo instalazioen titularra edozein dela ere.
- b).- Hornidura zerbitzuak egiten dituen edozein enpresa, baldin eta zerbitzuak egiteko erabiltzen dituen tutueria, hari eta gainerako instalazioek udalerriko lurzoru, lurgaina edo zorupea atzematen badute.

3. Artikulu honetan ezarritakoaren ondoretarako, zerbitzuak banatzen eta merkaturatzen dituzten enpresak ere zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen multzoan sartuko dira.

2. artikulua.-

Ordenantza hau udal mugarte osoan aplikatuko da.

II – ZERGA EGITATEA

3. artikulua.-

1.- Zerga egitatea honakoa da: hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek udalerriko bide publikoetako lurzorua, zorupearen edo lurgainaren bakarreko erabilera edo aprobetxamendu berezia egitea, zerbitzuok interes orokorrekoak badira, edo eragina badute udalerriko biztanle guztiengan edo gehienengan.

2.- Tasaren zenbatekoa ezartzeko araubide hau aurreko artikuluan aipatutako enpresa guztiei aplikatuko zaie, bai zerbitzuak egiteko erabiltzen dituzten sareen titular direnei, bai sareen titular ez izan arren sareak erabiltzeko, sareetan sartzeko edo haiekin konektatzeko eskubideen titular direnei.

3.- Sakelako telefonoen zerbitzuak ez dira sartuko tasaren zenbatekoa ezartzeko araubide berezi honetan.

4.- Tasa hau bateragarria da udal eskumeneko zerbitzuak edo jarduerak egiteagatik ezar litezkeen beste tasa batzuekin, hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresak haien subjektu pasibo izan behar direnean Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

24.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera. Tasa hau ordaintzen duenak ez du edukiko udalerriko bide publikoetako lurzoruaren, zorupearen edo lurgainaren bakarreko erabileragatik edo aprobetxamendu bereziagatik ezarritako gainerako tasak ordaindu beharrik.

III – SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua.-

1. Subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, martxoaren 10eko 2/2005 Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 34. artikuluan aipatutako pertsona fisiko eta juridikoak eta erakundeak, hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen titularrak izanez gero, baldin eta zerbitzuok interes orokorrekoak izan edo udalerriko biztanle guztiengan edo gehienengan eragina badute, eta haiek egiteko udalerriko bide publikoetako lurzoruaren, zorupearen edo lurgainaren bakarreko erabilera edo aprobetxamendu berezia egiten bada.

2. Artikulu honetan ezarritakoaren ondoretarako, zerbitzuak banatzen eta merkaturatzen dituzten enpresak ere zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen multzoan sartuko dira.

IV – SALBUESPENAK, MURRIZKETAK ETA HOBARIAK

5. artikulua.-

Salbuespenak, eta bestelako onura fiskalak, aplikatu beharreko xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera emango dira.

V – ZERGA OINARRIA

6. artikulua.-

1.- Tasaren zerga oinarria kalkulatzeko, hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek udal mugartean urtean egiten duten fakturaziotik ateratako sarrera gordinak hartuko dira kontuan.

2.- Sarrera gordinak izango dira enpresari egotzi ahal zaizkionak, udalerrian egindako zerbitzuen ordainez lortutakoak badira.

3.- Ez dira sarrera gordintzat joko zerbitzuen gaineko zeharkako zergak, ez eta gainontzekoen kontura kobratutako partidak edo kopuruak ere, hornidura zerbitzua ustiatzen dituen enpresaren beraren sarrerak ez badira.

Halaber, ez dira fakturazioaren diru-sarrera gordinen artean sartuko, Ekonomia Ministerioaren Energia Ekoizteko Instalazioen Administrazioaren 1. edo 2. Sekzioan inskribatutako instalazioetan erabiliko dituzten hornidura-zerbitzuen kontura jasotako kopuruak, azken horiek araubide ezberdina dutelako, eta energia sortzeko beharrezkoak diren lehengaiak erabiltzeagatik zergak ordain ditzaketelako

4.- Zerbitzuak egiteko besteren sareak erabiltzen dituzten enpresek euren fakturazioaren sarrera gordinetatik kenduko dituzte beste enpresa batzuei beraien sareekin konektatzeagatik edo haietan sartzeagatik ordaindutako kopuruak. Halako sareen titular diren enpresek horregatik jasotako kopuruak fakturazioaren sarrera gordin gisa konputatu behar dituzte.

5.- Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 112. artikuluan eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Ikuskapenari buruzko Araudiaren 37. artikuluan ezarritakoari jarraituz, sareen titular diren enpresek Udalari informazioa eman beharko diote, hark eskatuz gero, sareetan sartzeagatik edo haiekin konektatzeagatik ordaintzen dieten enpresei buruz.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

VI – KUOTA

7. artikulua.-

1.- Zerga kuota %1,5 izango da, eta udal mugartean urtean egindako fakturaziotik datozen sarrera gordinei aplikatuko zaie.

2.- Aprobetxamendu bereziak udalerriko jabari publikoko ondasunak suntsitzea edo narriatzea badakar berekin, onuradunak haiek berreraikitzeke edo konpontzeko gastu osoa ordaindu beharko du eta zenbatekoa lanei ekin aurretik jarri beharko du; horrez gainera tasa ordaindu beharko du.

Kalteak konponezinak badira, Udalak kalte-ordaina jasoko du. Kalte-ordainaren zenbatekoa suntsitutako ondasunen balioa edo narriadurari dagokiona izango da.

Udalak ezin ditu barkatu idatz-zati honetan adierazitako kalte-ordainak eta itzulketak, ez osorik, ez zati bat.

VII – SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

8. artikulua.-

1.- Hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek udalerriko bide publikoetako lurzorua, zorupearen edo lurgainaren bakarreko erabileragatik edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasa aprobetxamendu berezia hasten denean sortuko da lehenengoz, eta geroztik urtero sortuko da, urtarrilaren 1ean.

2.- Subjektu pasiboari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik jabaritza publikoaren aprobetxamendua ezin baliatu edo garatu bada, tasaren zenbatekoa itzuli egingo da.

VIII- LIKIDAZIOA ETA SARRERA

9. artikulua.-

Udalak likidazioa egingo du, eta likidatutako zenbatekoaren sarrera egingo da.

IX – TASEN KUDEAKETA

10. artikulua.-

Hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek, hiru hilean behin, egutegiko hiruhilekoaren lehen hamabostaldian, aurreko hiruhilekoan izandako sarrera gordinen aitorpena aurkeztu beharko diote Udalari. Aitorpen horrekin batera, udalerrian eginiko fakturazioa egiaztatzeko agiriak aurkeztuko dituzte, eta Udal Administrazioak eskatzen dizkien gainerako agiriak.

11. artikulua.-

1. Udal Administrazioak hiru hilean behingo likidazioak egingo ditu. Behar diren egiaztapenak egin arte likidazioak behin-behinekoak izango dira. Egiaztapenak amaituta, behin betiko likidazioa egingo da eta interesatuari jakinaraziko zaio. Borondatezko epean ordaindu ezik, zorra premiamendu bidez ordainaraziko da.

2. Behin-behineko likidazioa, nolana ere, behin betikoa bihurtuko da aurreko artikuluan aipatutako aitorpena aurkeztu den egunetik lau urte igarotakoan.

3. Udalaren eta hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen artean hitzarmen edo akordioaren bat badago, artikulua honetan eta aurrekoan kudeaketari buruz ezarritako arauak ordeztukoak izango dira.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

4.- Udalak aitorpen-kitapen nahiz autolikidazio araubidearen mendean eska dezake tasa hori eta horrelakoetan, hornidura-zerbitzuen enpresa ustiatzaileek, hiru hilean behin, tasa horri dagokion aitorpen-kitapena nahiz autolikidazioa aurkeztu beharko dute Udal Administrazioan, Ekonomia eta Ogasun Sailean, egutegiko hiruhilekoa amaitzen denetik egutegiko 30 eguneko epean; bertan, aurreko hiruhilekoan udalerrri honetako fakturaziotik lortutako diru-sarrera gordinak jaso behar dira eta datu behar-beharrezkoa da hori kuota zehazteko. Aitorpen-kitapena edo autolikidazioa aurkeztean ordaindu behar da kuota hori.

Aitorpen-kitapena nahiz autolikidazioarekin batera, udalerrian eginiko fakturazioaren egiaztagiriak aurkeztu behar dira, eta baita Udal Administrazioak eskatzen duena ere.

12. artikulua.-

Zergen arloko arau-hausteak, haien sailkapena eta dagozkien zehapenak direla eta, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta Ordenantza Fiskal Orokorrean xedatutakoa beteko da.

X – AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau 2003ko urriaren 15ean egin zen Ezohiko Osoko Bilkuran onartu zen hasiera batean eta behin-betiko 2003eko abenduaren 12an. Ondoren, behin betiko aldatu zen, lehengoz 2006ko irailaren 27an egin zen Ohizko Osoko Bilkuran hasiera batean eta behin-betiko 2006ko azaroaren 21ean.

Aldaketa hau 2007ko urriaren 25ean egin zen Ohizko Osoko Bilkuran onartu zen hasiera batean eta behin-betiko 2007ko abenduaren 14an. 2.008eko urtarrilaren 01ean jarriko da indarrean, eta horrela jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabaki artean.